José Ignacio Agorreta
Imanol Ubeda
Imanol Rayo
EREIN

bazterretara eraman gaituelako", aitorren du Ubedak. Bainan azkenean unibertsorako horri lotutako hamabi kantu osatu ditu, Lizarralderen testuko atal bakoitzetik, baina. Don Inorreko taldearekin grabatutako *Sastraka* diskoa bilakatu dira.

Ibaiadarrak batu ahala, *Sastraka* ibai gero eta zabalagoa bihurtu zen. Luzatu zioten gonbitari men eginez, Imanol Rayo arbuziar zinemagileak argazki sorta bat osatu du Lizarralderen testuan inspiratuta. Bere oroitzapenen bidea Almadén aldera eraman zuen, Ciudad Realera. Han egin zituen argazkiak. Are gehiago: erretiratu horien soinuak ere bildu ditu.

Liburuak testuak, argazkiak eta koadroak bildu ditu. Gainera, CD bi dakartzat aldean, Don Inorreko diskoa, Imanol Rayoren argazkiak eta haiei dagozkien soinuak dira. Eta bada gehiago. Erakusketa zabalduko dituzte 2022an (Iruñea, Gasteiz eta Donostia). Erakusketa irekitzeko egunetan, Don Inorreko kontzertu bana emango du. *Sastraka* diskoa zuzenean entzuteko aukera bakarrak izango dira.

TOMAS ZABALLA
Kazetaria

¿QUIERES TENER EL POWER EN TUS MANOS?
NUEVAS AGENDAS ESCOLARES

TANTANFAN

“Me apetecía contar esta historia a través de la mirada de una mujer”

FOTOGRAFÍA: TXERTOA

BEGOÑA PRO URIARTE



Begoña Pro Uriarte ha publicado *La bordadora de melodías*, novela en la que, con la destreza que la caracteriza, vuelve a reconstruir un trocito de la historia medieval de Navarra, repleta de aventuras, intrigas, romances y sentimientos. Lo hace a través de la mirada de una mujer: Gracia Sánchez de Cascante.

¿Con qué trocito de la historia se van a topar esta vez los lectores?

Van a vivir intensamente los acontecimientos que siguen a la muerte en París, en 1305, de la reina Jeanne I de Navarra. La importancia de esta época radica en la unión de Francia y Navarra bajo un mismo rey.

¿Quién es *La bordadora de melodías*?

Es Gracia Sánchez de Cascante, citada en la documentación histórica de forma breve pero suficiente para convertirla en protagonista de la novela. No termina de asumir el matrimonio concertado para ella y, además, se convierte en bordadora del rey Louis I, lo que agrava su situación.

La cita de Christine de Pizan que abre la novela es esclarecedora, pero dígame: ¿la obra reivindica el papel de las mujeres, también en la Edad Media?

Me apetecía contar esta historia a través de la mirada de una mujer. Cuando escarbás en la documentación me-

dieval, vas descubriendo que algunas tuvieron bastante protagonismo. La propia Christine fue la primera mujer, que sepamos, que vivió de la literatura.


Retoma personajes de novelas anteriores...

Sí, es una novela independiente protagonizada por Gracia, pero se cuelan personajes de novelas anteriores, porque también participan en los hechos narrados.

Quedan cerradas las heridas de la Guerra de la Navarrería?

No se cerraron al menos hasta que en 1423 Carlos III concedió el Privilegio de la Unión y se derribaron las murallas que separaban los burgos de Pamplona. Ahora bien, en mi novela, Gracia hace una aportación importante para que empiecen a cicatrizar.

A las viejas heridas se añaden nuevas, como la operación de Philippe IV contra los templarios, que también afectó a Navarra.



LA BORDADORA DE MELODIAS
Begoña Pro Uriarte
TXERTOA

Jeanne I de Navarra estaba casada con Philippe IV de Francia. Durante años, ejercen su poder en nuestro pequeño reino a través de gobernadores. Todo lo que ocurre en suelo francés tiene repercusión aquí. Cuando Jeanne muere, la corona de Navarra corresponde al primogénito de la pareja, Louis. Pero Philippe impide que venga enseguida a Pamplona a ceñírsela. El reino, harto de gobernadores, se subleva. Hasta que Louis llega. Mi teoría es que Philippe impidió que Louis llegara antes porque así convenía a sus políticas. En concreto, deseaba el tesoro del Temple y solo cuando concretó su plan contra la orden en Francia permitió a su hijo venir a Navarra para que la aplicara aquí simultáneamente.

Los escenarios son fundamentales en sus novelas...

El itinerario del nuevo rey nos va a permitir trasladarnos desde San Juan de Pie de Puerto hasta Tudela, pasando por Estella, Olite, Puente la Reina, Aíbar, Tiebas y, sobre todo, por su relación con los protagonistas, Irulegui y Monteagudo. La acción en Francia nos llevará a Burdeos, Toulouse, Poitiers, Corbeil, Lyon y, por supuesto, París.

KARMELE URRUTIA
Periodista

La entrevista completa:
<https://bit.ly/begoñapro>



ELÍSABET BENAVENT

MÁS DE 3.500.000 EJEMPLARES VENDIDOS

¿Se puede ser fiel a uno mismo cuando lo que está en juego es el amor?

Penguin
Random House
Grupo Editorial

SUMA
de Penguin

f penguinlibros
www.penguinlibros.com

EL SECRETO DE ERNA

La asturiana Alicia G. García acaba de publicar *El secreto de Erna*, una nueva novela de crímenes policíacos en la que se suceden las aristas perturbadoras, desde farmacéuticas sin escrúpulos a organizaciones implicadas en el tráfico de menores.

La inspectora Olivia Garrido llega a Gijón huyendo de su anterior destino como policía y de problemas personales. En la nueva y aparentemente tranquila comisaría, le asignan como compañero a Alejo Verdalles, que está pasando un mal momento familiar, superado por haberse convertido en padre hace apenas ocho meses. El primer caso del que se ocupan como pareja les va a estallar

como una bomba de relojería. Han asesinado al conductor de un coche en una carretera apartada en las afueras de la ciudad. No lejos del lugar del crimen, aparece una niña con una herida en la mano. Días después de encontrarla, la criatura permanece callada y con la mirada puesta en el infinito. La historia que oculta cambiará las vidas de ambos policías. Alicia G. García (Gijón, Asturias, 1972) es una escritora que cultiva distintos géneros pero, sobre todo, la novela negra. Diplomada en ciencias empresariales, sus inclinaciones profesionales se alejan de su titulación universitaria. Interesada en el mundo del asociacionismo, ha centrado su vida laboral


en el trabajo como educadora de calle y directora de tiempo libre en programas de exclusión social con menores. Fruto de algunas experiencias vividas surge su primera novela, *Buenos días* (Premio Princesa Galiana 2008). Su segunda obra, *Y por fin, el silencio*, logra el apoyo de los lectores manteniéndose durante meses en los primeros puestos de venta. En 2014 cambia su registro y publica en Chile su primera obra infantil, a la que seguirían otras. Al inicio de esta década regresa al género policiaco con *La cárcel* (Premio Internacional de Narrativa Marta de Mont Marçal 2020), *Susurros del pasado* (Premio Princesa Galiana 2021) y *El secreto de Erna*.

RBA

**EL SECRETO DE ERNA**

Alicia G. García

RBA



RBA

LA VIDA EN LA PUNTA DE LOS DEDOS

Jokin Azketa

RBA

El veterano montañero navarro Jokin Azketa aprovecha su experiencia aventurera para alumbrar *La vida en la punta de los dedos*, novela negra ambientada en los escenarios extremos de la Patagonia. Una obra breve y envolvente, definida por unos paisajes sobrecogedores y una atmósfera inquietante, por la que circulan asuntos como la frustración, el desengaño, los celos y la desconfianza. El Chaltén, en la Patagonia, suele ser un lugar al que acuden alpinistas de todo el mundo. Sin embargo, una siniestra sombra ha caído

sobre la zona tras el asesinato de dos niñas que han sido ahorcadas. Hasta allí viaja el escritor Norman Scarf con afán investigador en busca de material para su nuevo trabajo. Lo que encuentra en este rincón de Argentina es un montañero estadounidense sospechoso y unas autoridades locales que quieren cerrar rápidamente el caso para no ahuyentar al turismo. Pero eso va a ser imposible, puesto que una tercera niña acaba de desaparecer. Jokin Azketa (Iruña, 1957) siempre ha intentado aunar sus tres pasiones: los libros,

la montaña y los viajes. Tras sus inicios en el sector editorial, en 1986 cofundó la librería Muga, una tienda de referencia en la capital navarra, especializada en literatura de viajes y montaña. Además, ha sido colaborador de varios medios escritos y radiofónicos. En 2011 publicó su primera novela, *Donde viven los dioses menores*. Con *La vida en la punta de los dedos* afianza su carrera como escritor de novelas de intriga ambientadas en espectaculares marcos naturales.

LA VIDA EN LA PUNTA DE LOS DEDOS



Tras siete largos años de espera,
llega la novena entrega de
OUTLANDER

Este verano viaja con la saga de DIANA GABALDON
que ha conquistado a más de 50 millones de lectores

www.penguinlibros.com

@salamandraed



Gaur egun ezagutzen dugun **elkar** taldea (argitaletxea, banaketa, liburu-dendak, impresioa zentroa) ez da ezerezetik eta bat-batean sortutakoia. Ibilbide luzearen ondorio da eta urte asko egin behar dira atzera lehen urratsak eza-gutzeko, 50 urtetik gora, lehen ernamuina izan zenaren berri izateko.

Joseba Jaka zegamarra, aurretik ere etxez etxeko salmentan aritu izan zena, euskarazko liburuak eta materiala saltzen hasi zen, soldaduskan zela Euskal Herria eta euskararen kon-tzientzia hartu ondoren: Ettxez etxe liburuak saltzeaz aparte, handik eta hemendik ikastolietarako materiala eskuratu eta zabaltzen eta materiala sortzeko baliabideak biltzen hasi zen. Joseba berak honela kontatu zuen: "Ikastolak ere hortxe zeudenez, euskarazko liburueta hasi nintzen mugitzen. Iñaki Beobidek ateratako Walt Disneyren liburu batzuk... Gero norbaitek ikastolarako apunteak baldin bazeuz-



Jaka anaiaak: Xanti, Bixente, Joseba, Jon eta Goio.

kan, larunbatetan haien multikopistan atera, sailkatu, grapatu, eta horrela ibiltzen ginen, ikastolaz ikastola. Hori irabazirik gabe. Irabazietatik ere, gero Mapfren ibilitako Elias Arre-seren eta beste batzuen ideia izan zela uste dut, komisioaren erdia ikastolarako testuak egiteko uzten hasi ginen. Gordailu taldearekin egin genuen akordioa eta hala atera ziren lehen testuak, ikastola Liburutegia. Miloi t'erdi [pezeta] utzi genuen horretarako."

1970eko hamarkada hasieran, beraz, lehen urratsak egiten hasi ziren liburu banatzale gisa Jaka anaiak -Josebarekin batera Goio eta Jon ere aritu ziren eta horretan-.

Bitartean, Ipar Euskal Herrian ere euskal giroa ez zegoen geldirik eta 1972an, euskal kultur munduko hogei lagunen artean ELKAR argitaletxea sortu zuten, Euskal Liburu eta Kantuen ARgitaldaria. Manex Pagola izan zen sustatzaila nagusia Gexan Alfarok gogoratzen duen moduan: "Elkartea honen sortzea ere, Manex Pagolaren ideia izen zen. Jakes Abeberryk, Enbata-ren ardura-dunak, 1962an Biarritzen ireki zuen Goiztiri argitaletxea, 1969an gelditua zen argitaratzetik, hogei bat disko eta dozena erdi bat liburu argitaratu ondoren. Eta Manexek baitezpada nahi zuen jarraipen bat eman geniezaion. Iparraldeko hogei kantari eta idazle euskaltzale-abertzale bildu ginen beraz, xede horren inguruan. Gure artean sortuko ziren eta gure inguruan sortazariko ge-

nituren liburu eta diskoak egitetik saltzeraino guhaurrek bideratu nahi genituen. Hona beraz, sortzaile horien 20 izen-abizenak, alfabetikoki emanak: Gexan Alfar, Martxelin Arbelbide, Pantxo Carrère, Patxiaka Erramuzpe, Mixel Etxeberri, Bernard Gayon, Maialen Hiriat, Jakelin Idiart, Joanan Idiart, Jean iriart, Maile Ithurbide, Daniel Landart, Christiane Lapique, Battita Larzabal, Raymond Lasquibar, Jean Louis Maitia, Argitxu Noblia, Peio Ospital, Manex Pagola eta Arrosa Ruiz Ceberio."



Hil ala bizi elkar argitaletxearen lehenengo liburua.

ELKAR argitaletxea, Goiztiri argitaletxearen funtsak hartuta abiatu zen. Funtsen artean zeuden, besteak beste. Mixel Labeguerie, Mikel Laboa edo Benito Lertxundiren diskoak eta Txillardegiaren *Huntaz eta hartaz*, Daniel Landarten *Hogei urte* eta Federico Krutwigen *Vasconia* liburuak. ELKAR argitaletxearen lehen diskoak izan ziren Manex Pagolarena, Maite Idirinena eta Pantxo eta Peirena; liburuak,

berriz, Xabier Amurizaren *Hil ala bizi* -Larraun ezizenez sinatua-, eta Bernard Gayonen *Les basques, un peuple, une nation. Euskadi dans l'Europe* -Altabizkar ezizenez sinatua-.

Ondoren, 1974an, enpresa ekonomikoki indartzeako xedez kapitala handitzeko erabakia haritu zuten. Kapital gehitzearekin batera, haien euskaltasun eta abertzetasunaren seinale, Euskal Herria bere osoan hartu nahi zutenez, Hego Euskal Herriko 20 lagun gehitu ziren proiektura: Jokin Apalategi, Joxe Martin Apalategi, Koldo Aristegi, Amaia Aseginolaza, Joxe Azurmendi, Maria Pilar Garmendia, Maite Idirin, Eusebio Iriarte, Mari Jose Irizar, Paulo Iztueta, Jesus Maria Larrazabal, Mikel Urteaga, Goio Jaka, Jon Jaka, Joseba Jaka, Xanti Jaka, Joxe Manuel Odriozola, Joxemari Sors, Joan Mari Torrealda eta Juan Jose Uranga.

Argitaletxearen izaeraz honela idatzi zuen Manex Pagolak: "Landu nahi duen saila mugagabea da eta beraz egin daitezkeen irabaziak berriz inbertitzearen beharra argi daukate denek. Kantariekin eta idazleek beren egile eskubideak eskuratu dituzte, taldean finkatu arau eta epeen arabera."

Jakaren eta Pagolaren hitzetan antzeman daitke elkar, argitaletxea bezala Taldea, zabalten, eguneratzen eta indartzen joateko se-kretu nagusietako bat: berrinbertsioa. Hego Euskal Herrian liburu banaketan eta salmentan hasi zirenek eta Ipar Euskal Herrian argitaldaria antolatu zutenek, denek zuten oinarri bera, irabaziak izatekotan, hain zuzen euskal kulturan inbertitzea.

Joan Mari Torrealdaik gogoratzten zuen moduan, elkar Taldearen ezaugarri nagusienetakoak, euskaltzalea izateaz gain, hasieratik eskuzabal jokatzea izan zen, sortzetik helburu nagusia elkar bera baino euskal kultura izan baitzen.



elkar fundazioaren aurkezpeneko festa.



Iparraldeko fundatzaile taldea.



Hegoaldeko fundatzaileak.

Argitaletxearekin batera Baionan bertan banaketa eta liburu-denda ere martxan jarri ziren, Zabal elkartearren eskutik. Ikusten zuten sormena eta ekoizpenarekin batera ikusgarritasuna eta zabalkundea ziurtatu behar zituztela euskal kulturarentzat. Joseba Jaka izan zen sustatzailea Jokin Apalategiren laguntzarekin, eta gerora Gexan Alfaro eta Joxemari Sors gehitu ziren. Alfaroren egitekoa banaketa indartzea zen, eta Sorsek Jakaren leku hartz zuten hura 1976an Hegoaldera itzuli zenean.

Joseba Jaka bere anaiek egiten zuten lanari egitura emateko asmoz itzuli zen 1976an eta dezenen artean Bilintx liburu-denda eta Zabaltzen banaketa enpresa eratu zituzten Donostian. Joseba, Goio eta Jon Jaka izan ziren, bada, euskal liburugintzaren komertzializaziorako enpresa haien sortu eta taldea antolatzen hasi zirenak. Geroxeago, Joxemari eta Iñaki Sors zein Jose Iñazio Lizarraga eta Xanti Jaka batu zitzaiak. Euskal liburuari ikusgarritasuna emateko, erakusleihoa, Bilintx liburu-denda, eta zabalkundea emateko banaketa enpresa,

Zabaltzen, eratu ondoren etorri ziren pixkana-ka beste liburu-denda batzuk, euskarazko pro-dukzioak toki nabarmenik ez zuen hiriburuuetan hari lekua egiteko asmoz. Bilintx eta Zabaltzen enpresen sorrerak garrantzitsuak izan ziren euskal argitaletxeen garapenerako, eta nola ez, handik gutxira Hego Euskal Herrian ere kokatu zen ELKAR argitaletxearentzat ere bai.

1977an ELKAR argitaletxeak Hegoaldeko en- presa antolatu zuen Donostian, Baionako egi- tura berarekin, esan nahi baita Baionan baz- kide ziren 40 lagunak izan zirela Donostiako enpresako bazkide ere. Hasierako zerrendatik bi aldaketa gertatu ziren 1987an, hala ere: Manex Pagolak eta Martxelin Arbelbidek utzia zuten ELKAR argitaletxea beste proiek- tu kultural batzuetara dedikatzeko, eta haien lekuaren Antton Pochelu eta Jeanne Hiriart zi- ren bazkide.

elkar enpresa taldea handituz joan ahala, sor- tzaileek kezka bat zuten: nola egin euskal kultu-



50. urteurreneko aurkezpena. M. Esnal, J. Sors eta O. Osa.

raren zerbitzura antolatutako enpresa azpiegi- tura gerora ere euskal kulturaren zerbitzurako gera zedin, eta ez izatea besterik gabe esku pribatuetan geratutako enpresa taldea. Zen- bait aukera aztertu ondoren, erabaki zuten Fundazioa zela aukera hori emango zien egitura: alde batetik, sortzaileen eskuetan ziren ondasunak fundazioaren esku utzita, fundazioa egingo zen ondasunen jabe; bestetik, behin fundazioa pasata ondasunak, ez sortzaileek ez haien ondorengoen izango zuten ondasunekin geratzeko aukerarik, eta irabaziak euskal kulturan berrinbertitzeko aukera ematen zuen. Beraz, Fundazioa pasa ziren ELKAR argitaletxea, liburu-dendak, Zabaltzen banake- ta eta ondasun guztiak, denen ekarpenarekin osatuz **elkar** Fundazioa bera.

1996an, Joseba Jaka istripu batean hil ondoren, gauzatu zen aurretik landuta zuten Fundazioa -Euskalgintza Elkarlanean Fundazioa izena- rekin hasieran eta **elkar** Fundazioa izena har- tuta ondoren-, eta ordutik bera da **elkar** Talde gisa ezagutzen dugun kultur egituraren jabea.

Gaur egun, elkar fundazioaren baitan dauden enpresa nagusiak honakoak dira:

- Argitaletxea: Elkar argitaletxeak SL. Bere baitan hartzen ditu Elkar (liburuak eta mu- sika), Ttartalo, Txertoa eta Sua.
- Banaketa enpresa: Elkar banaketa eta El- karlanean SARL Euskal Herrian; ACL eta DISPE Espainiako estatuan.
- Liburu-dendak: 18 Euskal Herrian.
- Impresio zentroa: Leitzaran Grafikak.

Halaber, parte hartzen du beste hainbat era- gilerekin batera hainbat kultur enpresa- ten: Ikaselkar argitaletxea, Martin Ugalde kultur parkea, Hamaika telebista, Irri lagunak, Bi- dasoa inprimategia.

Euskara eta euskal kulturaren beharrei eran- tzuteko eratu zen **elkar**, eta hasierako izpirlitu berarekin jarraitzen du gaur egun, garaiko sor- tzaileen lekuaren beste talde bat ari bada ere hu- ra kudeatzen.



Liburu aurkezpena Bilintxen. J. Jaka, J. Azurmendi, M. Castells.



Elkar Fundazioaren helburuak eta baloreak

Elkar Fundazioaren xedea, euskararen eta euskal kulturaren sustapena eta garapena modu era-ginkorrean bultzatzea da, enpresa eta ekonomia euskara eta euskal kulturaren zerbitzura jarriz.

Eta misio hori lortzeko, honako ezaugarri hauetan oinarritutako baloreak garatu ditugu:

- **Elkarlana.** Elkar Fundazioak ez du bere egitekoa bakarlanean soiliak ulertzen, baizik eta helburu berdinak konpartitzen dituzten herritar, talde, elkarte eta abarrekin lankidetzan.
- **Konpromisoa eta profesionaltasuna.** Profesional ahalik eta prestatuenak garatzea konpromiso kulturala kontutan izanda.
- **Eredu propia.** Egitura integrala jarri du Fundazioak abian, ekoizpena, banaketa eta salmenta bere baitan hartzen dituena.
- **Kultur industria.** Euskal kulturaren zerbitzura enpresa-egitura sendo bat jartzea izan da Fundazioaren ekarpenik esanguratsuenetako bat.
- **Berrinbertitze-politika.** Taldea osatzen duten enpresek lortzen dituzten etekin guztiak, inbertitzea hasieratik izan da Fundazioaren oinarrizko filosofia.
- **Lurraldetasuna.** Euskal Herritik kanpo egitura berriak sortzeari uko egin gabe, gure indarra eta lehentasun nagusia Euskal Herrian erantzuna ematea.
- **Eredu sozialeko enpresa.** Pertsonen baloretan oinarritzen den enpresa: lan harremanak, ordainketa eskala finkoa, lanpostu sorkuntza, mantentua eta abar zaindu eta garatzen dituena. Berdintasunaren aldeko joera eta ez diskriminatzalea sustatzen dituen enpresa da.
- **Independentzia.** Bere lana kultur arlora zuzentzen du bere askatasunetik, independentea izanik alderdi eta instituzio politikoetatik erabakiak hartzerakoan eta aldi berean elkarlanean denekin.

[""]

50 urte kulturgintzan herrigintza eginez

elkar taldearen sorreraren arrazoia az-
terrakoan, gogora eka-
ri behar dugu nolako garaiak ziren bere ibil-
bidea hasi zuenean. 1960ko hamarkadaren
bukaeran eta 70ko hasieran izan zen, beraz,
frankismoaren azken urteak ziten Hegoaldean,
eta Iparraldean, berriz, nahiz ez zegoen de-
bekurik, euskara eta euskal kulturarekin atxi-
kimendu eta kontzientzia falta handia zegoen,
eta haiekiko kontzientzia guztiz lozorroan.

Garai horretan Hegoaldean, kontrol politikoa
eta debekuak zirela medio, euskara eta euskal
kulturak izugarrizko atzerakadak jasanak zituz-
ten. Euskarak ez bakarrik falta zuen ofizialtasuna:
eskoletan ez zen erabiltzen, gutxitsita ze-
goen eta, edozein testu argitaratzekoan, hark
kontrola pasa behar zuen aurretik, baimena lortu
behar zuen, zentsura indarrean baitzegoen.

Hala eta guztiz, gizartearren zati zabal bat al-
daketaren alde borrokan eta lanean hasia zen,
garai horretakoak dira Ikastolen hasierak, hel-
duen alfabetatzeko gau eskolak, eta batez ere
jendearen kultur kontzientzia ernatzea.

Testuinguru horretan, **elkar** helburu zeha-
tzarekin sortu zen, jendearen kultur egarri ho-
rri erantzuna emateko, sorkuntza bultzatzeko.
Sortutako hori argitaratzeko baliabidea izan
zen argitaletxea.

elkar taldea bere garapenean, ikusten zituen
beharrei erantzuteko, ohiko enpresak sortzen

joan zen, dela argitaletxe, banaketa edo libu-
ru-dendak. Hasieratik oso garbi izan zuen ete-
kinak baldin eta lortu ezkerro ez zirela poltsiko
partikularretara joango, baizik eta izango zire-
la oso osorik euskaran eta euskal kulturan be-
rrinbertitzeko.

Juridikoki posible izan zen unean, nahi horri
forma eta bermea emateko **elkar** Fundazioa
sortu zen, hura bihurtu zelarik **elkar** taldeko
enpresa guztien ondasunen jabe. Fundazioak
taldeko enpresen eskutik bideratzen du bere
egitekoa, eta haien ohiko enpresen izaera eta
betebehar berak dituzte.

elkar Fundazioaren xedea, euskara eta euskal
kulturaren sustapena eta garapena modu
eraginkorrean bultzatzea da, enpresa eta ekono-
mika euskara eta euskal kulturaren zerbitzu
jarriaz.

elkar gidatu duten baloreen artean, azpimarra-
tu nahi nuke ekarpenetako bat izan dela
izaera nazionala eman izana: Iparraldeko eta
Hegoaldeko pertsonak daude sorreran, eta
sorreratik izan du helburu Euskal Herriko sor-
tzaile guztiekin lan egitea eta zerbitzua ere lu-
rralde guztira zabaltzea.

Zerbitzu hori, hasieratik integrala izan zen,
esan nahi dut liburu eta musikaren balio kate
guztiari erantzuna eman izan diola: sorkun-
ta, argitalpena, banaketa eta liburu-denda.
Garai haietan, sektorean ez zen ohikoa horre-
lako egiturak eratzea, enpresa bakoitza es-
pezializatua zegoen eginkizun batean, zela
argitalpena, banaketa edo liburu-denda. **elkar**-ek
hasieratik argi izan zuen euskara eta
euskal kulturaren egoera nolakoa zen, bene-
tan ahula, txikia eta ikusezina. Egoerari aurre
egiteko, beharrezko zen sortzaileei lagundu
eta beraien lanak argitara ematea. Bestalde,
ze goen apurra ez zen saltzen modu normali-
zatu batean, gehienetan harpidetza bidez edo
liburu-dendetan modu prekario batean, argi
ze goen euskara eta euskal kulturan espeziali-
zatutako liburu-denda beharra. Gainera, **elkar**-en
helburua zen argitalpen horiek Euskal
Herriko liburu-denda beharra. Gainera, euskal

Joxemari Sors Bagüés

elkar Fundazioko lehendakaria



kultura ohiko gainerako liburu-dendeetan ere
eskuragarri jartzea. Behar horiek ikusi geni-
tuelako jo genuen gure egin beharra modu in-
tegral batean antolatzen: **Elkar** argitaletxea,
Bilintx liburu-denda eta **Zabaltzen** banaketa.

Lehen aipatu dugu zergatik **elkar** Taldeak har-
tu zuen Fundazio egitura, euskara eta euskal
kultura elikatzeko eta laguntzeko; horretarako
enpresa taldeak garatu izan duen politika be-
rrinbertsioarena izan da, hasiera hasietartik.
Berrinbertsio politika horrek ahalbideratu digu
zenbait proiektu martxan jartzea, eta garran-
titsuena izan da enpresa eta ekonomia uz-
tartuz baliabide ekonomiko eta egiturazkoak
sortu direla eta euskara eta euskal kulturan
zerbitzura jarri direla.

Baina **elkar** taldea ez zen sortu besterik gabe
enpresa indartsu bat egiteko, herri honen be-
harrei erantzuten saiatzen baizik, euskararen
eta euskal kulturaren inguruan lan egiten du-
tenekin eskuzabal izateko. Berrinbertsioaren
izateko eta egiteko elkarlana da, batak bes-
tea eskatzen du derrigorrez. Gure herri txiki
honetan beharrezkoia izan eta bakarka ezin
dena egin elkarrekin eginez bihurtzen da pos-
ible, eta horrek onurak dakarazkie ekintzaileei
eta euskal gizarteari berari. **elkar** Taldearen 50
urteko ibilbide honetan elkarlana oso presente
egon da beti, inguruko beste eragile batzuekin
batera garatu ditugu hainbat egitasmo. Eragile
horietako batzuk aipatzekotan: Bostak bat tal-
dea, Elhuyar, Uzei, Ikastolak, Jakin, Egunkaria
eta Berria, Kontseilua, Irrien lagunak, Hamaika
Telebista eta abar.


Bukatzeko esan **elkar** taldearen eginkizuna
euskaran eta euskal kulturan zentratu dela al-
derdi politiko eta instituzional etatutako autonomo
eta independiente izanda, baina horrek baldin-
tzatu gabe edonorekin batera lan egitea.

Filosofia edo egiteko modu hori hasieratik in-
darrean egon da sortzaileen jardueran, baita
gaur egun ere, belaunaldi aldaketa egin eta ge-
ro. Zinez eskertzekoa da jarraiapena eman dion
taldeak helburu eta filosofia berarekin jarrai-
tzen dutela ikustea.

50 urtez aritu da elkar euskarak eta euskal kulturak bere garapenerako dituen beharrei erantzuten saiatzen. 70eko hamarkadan hasi zen, garai haitetan itolarrian bizi zen euskal kulturari arnasbideak bilatzeko kezkak eraginda. Dena zegoen egiteke, euskarakoz liburu eta musikaren eskaientza urria zen, gainera, empresa egitura sendoak falta ziren gero eta handiagoa zen gizarte eskaria-ri erantzun ahal izateko. Trantsizio urte zorabiagarri haitetan hasi zen elkar gerora bere enpresa egitura izango zena egituratzen, garai hartan sortu ziren elkar argitaletxea, Zabaltzen banaketa enpresa, edota Zabal eta Bilintx lehen liburu-dendak. Ondoren, 80 eta 90ko hamarkadatan, kultur industria euskaldun baten garapenerako ezinbestekoak ziren sostenguko egiturak eraikitzen aritu zen; Euskal Herrian zehar liburu-denda katea hedatzu, banaketa sarea profesionalizatzu, musikaren alorrean diskotexea sortu eta grabazioa estudioa eraikiz, eta argitalpenetan, haur, gazte eta helduei zuzendutako gai ugarietako kaltzatezko edizioak burutuz. Mende berriarekin, baliabideak bila espainiar estatu mailako he-dapenari ekin zion elkar-ek, banaketa alorrean Madril eta Bartzelonan abiatuz, gaur egun arte, non estatu osoan egiten duen lan, liburu, testiliburu, papertegi eta jokoen banaketan.

Baina mende berriarekin ere, taldearen hedapenaz gain, digitalizazioaren eskutik sektorearen eraldaketa iritsi zen, ordurarte egonkortua zegoen sektore eredu oso bat aldatuz. Irakurtzeko euskarri berriak, testu-liburuen digitalizazioak, on-lineko kontsumoak, kultur produktuen desmaterializazio gero eta handiagoak, etxeiko entretenimendu digitalaren aukera berriak..., aldi berean bat egin duten eraldaketa indarrak bilakatu dira, sektore osoaren joko ze-lai eta arauak aldatzeraino.

Gaur egun erronka bikoitza du elkar-ek. Testuinguru berrian euskara eta euskal kulturaren sustapena modu eraginkorrean bultzatzen ja-rrraitu behar du, orain arteko kultur beharrei eta berriei erantzuteko. Eta aldi berean, enpresa den aldetik, merkatu aldaketara egokitzen as-



Elkar Taldea eta euskararen kultur industria

matu behar du, horretarako estrategia zuzenak abian jarriz.

Erronak horiek gainditzerakoan bi dira elkar-en giltzarri nagusiak: beste eragileekin lankidetza eta merkatu aldaketetara enpresa ego-kitzapena.

Lankidetza elkar taldearen oinarria izan da 50 urtez. Esperimentziak erakutsi du eragileen arteko lankidetza indar biderkatzalea dela, indarrak bateratuta eta elkar lagunduz egin dezaketela aurrera euskal kulturak zein euskal kulturgintzako eragileek. Hurrengo hamarkadan ere, euskal liburugintza eta musikagintzaren sistema elkarlanean eraikitzen saiatuko da elkar, sektore osoari begira liburu eta musika katearen eragileekin proiektuak partekatuz, izan edizioan, logistikan edo komertzializazioan, edo izan liburu-dendekin lankidetzan. Sektorearen aldaketari sektore gisa aurre egitea da helburua, eta horretarako, lankidetza zenbat eta eremu gehiagotara zabaldu, orduan eta eraginkortasun handiagoa lortuko da.

Aurrekoarekin batera, merkatu aldaketetara eten gabeko egokitzapena egiten jarraituko du elkar-ek, merkatuaren berrikuntzei erantzuteko behar diren estrategiak garatuz. Liburu banaketaren sektorean aldaketa handia eta isila gertatu da Espainiako estatuan azken 15 urtetan. Aldaketa horren aurrean elkar Taldea garatzen joan den egokitzapen estrategia ho-

Mikel Esnal

elkar Taldeko
zuzendari-kudeatzailea



nela azal daiteke: elkar-ek, bere helburuei autonomiaz eutsi dio eta enpresa proiektu sostengarri baten bila, apustu estrategikoa egindu estatuko banaketa independentearen sektorean. Beste hainbat sektoretan gertatzen ari den bezala, liburuaren banaketa sektorean enpresen atomizaziotik kontzentraziorantz doan aldaketa prozesu bat gertatzen ari da, eta elkar Taldea prozesu horren estatuko traktoreetako bat da gaur egun. Estrategia horri erantzuten dio Adunako azpiegitura berriak. Egoitza berria elkar Taldearen gaitasun operatiboa sendotze-ra dator, aukera emanaz taldearen banaketa jarduera eraginkorragoa eta lehiakorragoa izan dadin, off-lineko zein on-lineko merkatuetan. Era horretara, elkar Taldearen apustua da euskararen kultur industriak bere epe luzeko bu-rujabetza eta sostengarritasunerako behar dituen azpiegiturak bermatzea.

50 urtez aritu da elkar euskararen herria egiten saiatzen. Bitarte horretan bere enpresa eredu bereizgarria hormatzen joan da, beti gizarte ekonomia izaeratik hurbil. Enpresa barrura begira, kultur sektoreak baimentzen dituen baliabide urrien banaketa egiteko orduan, barne ekitatea eta berdintasuna lehenetsi du elkar-ek norbanakoa aberastearen aurretit; eta kanpora begira, irabazi asmo ekonomikoa bezainbes-te, kultur irabazia bilatu du, gizartera itzuliaz gizartea emandakoa. Era horretara, elkar-ek erakutsi du posible dela, printzipio etikoe-tan oinarrituz, garrantzizko eskala duen herri proiektu eraginkor bat eraikitzea, merkatu zabaLEAN lehiakorra eta profesionala dena.

Alabaina elkar katebegi bat besterik ez da euskal kultur industriaren katean. Kate luze horrek, gaur gaurkoz, bere osotasunean, bideragarritasun duin bat lortzeko zaitasun estructuralak ditu. Euskararen kultur merkatuak duen tamaina mugatuak eragozten baitu sortzaile, kultur enpresa edo egituretan, prekarietatea gainditu eta egonkortasunera iristea. Kultur egiturak indartzea euskararen inguruaren ardaztuz; hori da hain zuzen, hurrengo hamarkadetan, elkar bitarte, eragile guztiekin lankidetzan gainditu beharko den erronka.

Olatz Osa Zubia

Elkar argitaletxeko zuzendaria



50 urte joan dira Elkarrek Kabier Amurizaren *Hil ala bizi* liburu argitaratu zuenetik, egunotan aurkeztu dugun *M ama eme ume* Erika Lagoma eta Estitxu Fernandezek ondutako liburua plazaratu denera. Errealitate soziopolitiko jakin baten testuinguruan argitaratuak biak ala biak, uneko gizartearen eta norbanakoentzako galdera eta auzien islak. Horixe da hain zuzen argitaletxearen eta ekoiztetxearen bizigai eta funtzioa, sortzaileen eta sorkuntzaren eskutik, momentuko behar eta erronkei, kulturatik, kultur edukien bidez erantzuna bilatzeko bitartekoak eskaintzea.


Kulturgintzan eta euskalgintzan ia guztia egituratzeko, idazteko, kantatzeko, plazaratzeko zegoen garaian ekin zion Elkar argitaletxeak bere ibilbideari. Egun ezagutzen ditugun egiturak, urteetan metatutako corpora eta hizkuntzaren beraren estandarizazioa ametsa ziren garaian, *herri gogoa* ez ezik, epe luzeko bisioa eta sekulako ausardia izan zuten Baionan elkartu ziren eta hauei berehala atxiki zitzazkien hegoaldeko kulturgile gazteek. Helburua zehatza zen: garaiko euskal kulturaren egoera zaila errotik aldatzea.

Bost hamarkada pasa dira, aldaketa handiak ezagutu ditugu lantaldeetan, egiteko eta antolatzeko moduetan, baina edozein ekinbide eta ekintzen gibelean ezkutatzen den zergatik eta zertarako galderen erantzunie eutsi egin zaie: euskaraz bizi nahi duen eta euskaraz pentstu, hezi, hazi eta garatu nahi duen herria eta herriarrak badira, garapen horretan kultur edukiek eta esperientziek ezinbesteko ekarpena egiten dute, eta ondorioz, argitalpengintza oinarri izango duen kultur projektu sendoa egikaritzen jarraitu beharra dago.

Ulerkera horrekin dihardu egungo lantaldeak, XXI. mendeko egiteko moduetara egoki-

tuz, Kultur projektua egunez egun elikatzen. Haur, gazte eta helduen literatura, Euskal Herriko historia eta pentsamendua, Euskal Herri fisika eta geografikoa, euskal currículumaren garapena eta musika ildoak dira proiektu ezberdinaren bidez etengabe osatzen eta lantzen ditugunak eta Elkar, TTarttalo, Txertoa, Sua eta Ikaslekar zigilupean argitaratzen direnak, urtean batazbeste 190 titulu berri plazaratuz.

50 urte Kultur projektua elikatzen, eskerronez



Kultur projektuak baditu, alabaina, ekoizpena bera osatzen eta ahalbidetzen duten bestelako egitekoak. Sorkuntzarik gabeko ekoizpenik ez dela dakigulako saiatzen gara urtero edizio planetan sortzaile/artistak berriei leku egiten, eta baita sariak eta bekak antolatzen. Eta, era berean, elkarlanean izan ezean, hainbat projektuk argia ikusterik ez dutela dakigulako egin dugu eta egiten dugu

bidea kulturgintzako eta euskalgintzako beste hainbat eragilekin hamaika proiektutan.

50 urte hauetan sekulako bidea eta ahalegina egin du kulturgintzak corpora osatzen, baina egungo gizartean argitaratzen jarraitzea bezainbesteko erronka da, testuinguru globalizatu eta gero eta uniformizatuagoan, ikusgarritasuna eta erreferentzialtasuna lortzea. Elkarrekin zein bakarka egindakoa badela eta eskuragai dagoela ikusgarri egitea eta Transmisioa egitea dira, bereziki belaunaldi berriei, argitaletxearen eguneroko jardunean beste oinarriak, urtero ehun aurkezpen eta kultur ekitaldi antolatuz, besteren artean.

Eta jakina, Kultur eragileta da, gure jardunaren muinean kokatzen dugun azken egiteko. Erronak ez dira txikiak: Kultur sortzaileen, bitartekarien, industriaren profesionaltasuna eta egonkortasuna, globalizazio garaiotan hizkuntza gutxiagotuetako Kultur-jarduna bizirik eta bizi ahalbidetzea, egiteko eta kontsumitzeko modu berrien aurrean ekoizpen jardunari eutsi ahal izateko negozio eredu berriean asmatzea eta etorkizuneko gizartearren balio-eskalan kulturak lehentasuna izatea. Horra sektoreko eta kulturgintzako beste eragilekin batera, lantzeko eta erdiesteko ditugun zeregin batzuk.

Zoriontek eta eskerrona adierazteko abagunea ere badira urteurrenak. Duela 50 urte proiektu honen oinarriak jarri zitzuten kulturgileei asko daukagu eskertzeko eta aitortzeko, orduko herri gogoa, bisioa eta ausardia isipilu garrantzitsuak dira, zinez. Eta eskerrona, halaber, bost hamarkadetan modu batera edo bestera proiektu hau elikatzen jardun duzuen lankide, sortzaile, elkarre, erakunde, kulturgile, kulturzale, lagun guztiei.



El grupo **elkar** que hoy conocemos (editorial, distribución, librerías, centro de impresión) no ha surgido de la noche a la mañana. Muy al contrario, es fruto de una dilatada trayectoria que nos obliga a remontarnos cincuenta años atrás para conocer el germen de la realidad actual.

Corrían los años 60 del siglo pasado. En plena dictadura, Joseba Jaka, un joven de Zegama, que se dedicaba a la venta de electrodomésticos puerta a puerta, tras tomar conciencia de la situación del euskera, comenzó a vender libros en lengua vasca. Además, se ocupó de conseguir y distribuir material para las recién nacidas ikastolas. Los beneficios de tan compleja labor los dedicaron a la publicación de textos para las ikastolas.

A comienzos de la década de los 70, por tanto, Joseba y sus hermanos Goio y Jon Jaka ya se dedicaban a la distribución de libros. Mientras tanto, en 1972, en Ipar Euskal Herria veinte jóvenes del entorno cultural euskaltzale (cantantes, escritores...) crearon la editorial ELKAR. Tenía como misión publicar discos y libros con todo el control del proceso, desde la creación hasta la venta.

Con la editorial ya en marcha, en 1974, ampliaron el capital de la empresa dando entrada a veinte personas de Hego Euskal Herria, medida con la que, además, dejaron patente la

visión nacional de su proyecto. Es entonces cuando confluyeron con la labor que el grupo de Joseba Jaka realizaba al sur de los Pirineos.

Tanto quienes fundaron la editorial en Ipar Euskal Herria como quienes trabajaban en la distribución y venta en Hego Euskal Herria compartían un criterio básico que se ha demostrado clave en el devenir de **elkar**: los beneficios que generase la actividad se debían reinvertir en la cultura vasca. Joan Mari Torrealdai solía recordar que el principal distintivo del grupo **elkar**, además de su carácter euskaltzale, ha sido desde sus inicios el actuar de forma generosa porque su objetivo fundamental, más que el propio grupo, ha sido la cultura vasca.

Así surgió la primera librería en Baiona, de la mano de la sociedad Zabal, a fin de dar visibilidad a la producción cultural vasca. A partir de 1976 Joseba Jaka y sus hermanos montaron la librería Bilintx en Donostia y la empresa de distribución Zabaltzen. Al igual que en Baiona, veían la necesidad de hacer un sitio en las capitales de Hego Euskal Herria a la cultura en euskera. De esta manera, durante las siguientes décadas fueron abriendo nuevas librerías por la geografía del país.

A medida que el grupo de empresas **elkar** crecía, a los fundadores les preocupaba que algún día aquella infraestructura quedara en manos

privadas. A fin de asegurar que siempre estaría al servicio de la cultura vasca, optaron por renunciar a sus participaciones en la empresa para dejar todos sus bienes a una fundación que mantuviera el espíritu original de reinvertir en la cultura vasca los beneficios que su actividad genere. Así pasaron a la fundación la editorial Elkar, las librerías, la empresa de distribución Zabaltzen y todos los bienes y propiedades.

Hoy en día estas son las principales empresas que forman parte de la fundación **elkar**:

- Editorial: Elkar argitaletxeak SL. Incluye los sellos Elkar (libros y música), Ttarrtalo, Txertoa y Sua.
- Distribución: Elkar banaketa y Elkarlanean SARL en Euskal Herria; ACL y DISPE en el Estado español.
- Librerías: 18 en Euskal Herria.
- Centro de impresión: Leitzaran Grafikak.

Además, participa con otros agentes de la cultura vasca en proyectos como la editorial Ikaselkar, el parque cultural Martin Ugalde, Hamaika telebista, Irrien lagunak y Bidasoa imprimategia.

elkar nació para dar respuesta a las necesidades del euskera y la cultura vasca. Cincuenta años después, ese sigue siendo el norte que guía toda nuestra labor.

ULISES


Ehun urte beteko dira aurten Literatura Unibertsaleko lan nagusietako bat idatzi zela. James Joycen *Ulises*. Baita zazpi urte ere Xabier Olarrak lehen aldiz euskarara ekarri zuela.

Irlanda eta irlandarrak lotzen dituzten kate denen adierazle, tradizio judeokristauak dakartzan nekeen isipil, bi mundu gernen artean sortu zen giro artistiko biziak ekarri zituen abangoardia denen topaleku, kultura helenikoari egindako monumentu literario bat edota jenio baten maisulan zoroa. Gauza asko da *Ulises*, baita askok hasi baina gutxik amaitu duten liburua ere, irakurtzea maite dutenek bizitzan behin sikeria saiatu beharrekoa. Itzuleria gabeko bidaia letren Mekara.

Urteurrena ospatzeko, eta zuetako asko berriz ere James Joycek eraikitako unibertsoan barneratzera gonbidatzeko, mendeurreneneko edizio bat prestatu du Igela argitaletxeak. Itzultzaleak itzulpena sakon berrikusi eta pasarte batzuk berrridatzi ditu. Zuzenketa andana eta edizio lan berria jaso ditu liburuak, bere zailtasunaren baitan ahalik eta erosoa eta izan dadin irakurketa irakurle zahar eta berrientzat.

Liburu atzeko oharrak ere moldatu eta hobetu dituzte argitaratzaileek, *Ulises* irakurri nahi duen irakurzaleari bidairen mapa zehatz bat eskaini asmoz. Galdu dadin, baina labirintoko haria erabat galdu gabe. Iritsi dadin amaierako Mollyren bakarrizketa ederrera.

Euskal literaturak dituen altxor gordeetako bat da itzulpen hau, dakarren euskaragatik, bere exijentziaren aberastasunagatik, bideak ez direlako bide leku ezezagunetara ez bagaramatzate. "Espero dugu – esan dute Igela argitaletxetik– guk *Ulises* berriz ere zuentzat prestatzen hartu dugun hainako nekea eta poza ekarriko dizkizuela irakurketak. Uda dugu aurretik, eta bizitza bakarra. Iritsi da unea labirintoan barneratu eta *Ulises* irakurtzen saiatzen".



ULISES
James Joyce
Itzultzalea: Xabier Olarra
IGELA

Vacaciones
Santillana

Oporretan ÒNGI

Oporretako koaderno bat erosita, jolastu dohainik gure online escape roomean, eta **20 bideokontsola eramangarriren** zozketan parte hartuko duzu.

Sartu hemen:

vacacionessantillana.es



**GUÍA DE
ESCALADA
EN NAVARRA**

Algo más que un libro con zonas y vías de escalada

Situado a pie de pared del sector Espolón del Indio, repaso la ruta con la mirada. La roca en Etxauri, en general, es de buena calidad, peculiar, eso sí, porque la caliza nos sorprende con placas con agujeros, gotas de agua pinchadas, choreras en desplomes, fisuras y dierros, placas verticales con cantos de tamaño medio, regletas... La rutina de escalar implica esta lectura previa, analizar la ruta, buscar agarres, imaginar cómo me voy a desenvolver en las transiciones, los movimientos que realizaré, los apoyos, la dirección...

En las manos es imprescindible la guía, mi guía. Los ojos realizan cientos de viajes, de la pared al papel, del papel a la pared, uno detrás de otro, mientras la cabeza se concentra y memoriza, ejecuta de manera virtual y planifica. Es lo que tiene la escalada, libera a tu mente, es un fabuloso ejercicio anti estrés. Mientras planifico y ejecuto no pienso en otra cosa. El mundo se reduce y solo veo unos pocos metros de roca a mi alrededor. Nada más. Es un mundo de sensaciones, cómo siento

la roca en mis manos, cómo mis dedos hablan con la pared, la sensación al apretar una regleta y sentir que puedo tirar de ella, cómo siento el aire, el sol, el frío, el estado físico y mental en que quedo tras escalar un largo difícil, siempre a punto de caer, cómo me duelen los brazos, pero, aún así, subo y subo.

Me apasiona. Me gusta escalar porque me topo con gente que comparte estas sensaciones, con gente que

suma, escala en silencio, saluda, mantiene caminos, de alguna manera, se compromete con la escalada, respecta las regulaciones por nidificaciones, es crítica con lo que tiene alrededor, pero acepta la diferencia, que aparca y piensa en quién vendrá detrás, alguien que se siente uno más con independencia del grado que haga. Disfruto con todo esto. No es solo un deporte, no se trata de pasar un ratito con los colegas y hacer unas risas. Hablamos de compromiso, de superación perso-

NADIE PUEDE OCULTARSE PARA SIEMPRE

DESTINO


María Oruña
El nuevo fenómeno de la novela negra

booket

nal, de retos y evolución, de sostenibilidad y eficiencia, de compañerismo y cuidado medioambiental.

